



3 ORDENANTZAK

2015eko Ordenantza Fiskalak onartuak izan dira

Astearteko ezohiko batzarraren onartua izan zen datoren urterako Ordenantza Fiskalen testua, zazpi aldeko bozkarekin (EH Bildu eta LOHP) eta bi abstentziorekin (EAJ). PSEk eta PPK ez zuten bozkatu, plenoa amaitu baino lehen joan egin zirelako. Tentsioa sortu zen alderdien artean, Ordenantzen testuari aurkeztutako emendakinak eztabaidatzean.

5 GALDEKETA

Stewart Vass eskoziarrarekin elkarrizketa

Eskoziak irailean egindako erreferendumaren ostean, Kataluniak asteburu honetan du hitzordua. Madrilek jarritako oztopoen gainera, azaroaren 9an galdeketa egitea da Artur Mas Generalitateko presidentearen asmoa. Hain zuzen eskoziarrek prozesua nola bizi izan zuten kontatu digu Stewart Vassek. Galdeketa giroaz, independentziak ekarriko lukeen aukeraz, Alex Salmond Eskoziako Lehen Ministroaren dimisioaz, Cameronen promesez, etab. hitz egin dugu Vassekin.



Iaz egin zen lehenengo aldiz Baserriko produktuen azoka gurean eta urtero egitearen garrantzia azpimarratu du Udalak.

Garaian garaiko produktuak Okendon izango dira bihar Baserriko produktuen bigarren azokan. Goizeko 10:00etatik aurrera erosketak egiteko aukera izango dute herritarrek, Udalak Behemendi elkartearekin batera antolatutako egitasmoan. Haurrentzat hainbat joko ere izango dira plazan. Udaletik lehenengo sektoreari bultzada ematearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute.

Bihar bigarren aldiz baserriko produktuen azoka berezia egingo da Okendo plazan.

10:00etatik 14:00etara, Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, 12 postu izango dira gurean herritarrek bertako eta garaiko produktuak eskura ditzaten.

Udaletik azaldu dutenez, duela bi urte udalerritari buruzko diagnostiko sozioekonomikoa egin zuen Udalak eta bertan merkataritza,

ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen arloak identifikatu zituen tokiko ekonomiako garrantzitsuen artean.

Lehenengo sektoreari dagokionean berriz, informe horrek Udalerrian sektore honen aktibitatea oso eskasa zela eta azken urteetan, oraindik gehiago murriztu zela jasotzen zuen.

"Hau dela eta, udaletik azoka hau bezalako egitasmoa burutzeko apustua egin dugu bi arrazoi garrantzitsu kontutan hartuta. Batetik,

lehenengo sektorea indartzea pasatzen ari den garai txar hauetan eta bestetik, merkatarien egoera indartzen laguntzen duten asteburuetak ekimenak sustatzen saiatzea, tokiko ekonomiaren inguruko parte-hartze bileretan adostu zen moduan".

Udalak azaldu moduan, Behemendi Elkarteak 2002. urtean ekin zion Baserriko Produktuen Azoka Bereziak antolatzeari, baserriarren produktuen ohiko feriek bizi zuten beherakada medio.

Hauen esanetan, orokorrean lehenengo sektoreak bizi duen beherakada dago jaitziera hauen atzean eta bestetik, eroslearen ohituren aldaketa bera.

Baserrikoen sustapena

Azoka hauek baserriko produktuen salmenta bideak sustatzeko direla azpimarratu

nahi izan dute. Izan ere, "salmenta puntu izateaz gain, baserriko produktuen promozio eta erakusketa-gune ere izan behar dute azokak".

Biharkoan, azoka goizeko 10:00etan hasiko da gurean, 14:00ak arte. Bertan aurkitu ahal izango dira: garaiko landareak, barazkiak, txerri haragia eta txerrikiak, ahate pateak, ahate haragia eta ahatekiak, sagarrak, ahuntz gazta, ardi gazta, behi gazta, barazkiak, baserriko ogia eta pastak, baserriko jogurtak, behi-esnekiak, ezta, etab.

Helduek erosketak egin bitartean, etxeko txikienek aukera izango dute goiz osoan zehar, plazan bertan joko ezberdinez gozatzeko.

Udaletik, larunbat goizean inguruko ekoizleen produktuak ezagutzera gerturatzeko deia egiten diete herritarrei.

"A" gizartea lortzeko

eskatu beti faktura


Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net



(B) Diru (B)eltza, enplegu (B)eltza



Neure kabuz



Gorka Lasa
Ireki aterkiak

Badakit ez dela denon gus-tokoa izan, baina aspaldi honetan oso gustora ibili gara izan dugun eguraldiarekin.

Udazkenari koxkatxoak kendu arren, noiz bait behar luke, eta aldaketa iritsi da, hemen ohikoa den bezala, egun batetik bestera udatik negura pasaz.

Andoni Aizpuru, Ana Urrutia eta Pello Zabalaren eguraldi prebisioak entzun eta irakurri ditut, eta denak, ñabardura bat edo bestez gain, bat datoz gauza batetan: larunbatean aterkiak ireki beharko ditugula.

Gure Esku Dagok antolatutako Ekainaren 8ko gizakateaz geroztik, ekaitza han-hemenka egiten duen gisan, hainbat herritan besterik ez dira ekin-tza batzuk antolatu. Baina honek, ez du esan nahi euria noiz egingo duen zain egon garenik, berriz ere hazia erein ahal izateko lurra prestatzen eta ongarrizten baizik.

Ekainaren 8 ko gizakatearen ondoren, "Gure Esku Dago" lan taldeak, hausnarketarako eta etorkizunerako zein ildo jorratu eta bide hartu aztertu ditu. Datorren urterako erronka berriak jarri eta erabakitzeko eskubidearen aldeko saretze prozesua abian ipini du.

Lehen esan bezala, larunbatean aterkiak hartuta atera behar dugu etxetik, baina ez euria egingo duelako, erronka berri baten aurrean gaudelako baizik. Mosaiko erraldoia antolatu da Zurriola hondartzan goizeko 11etan. Munduan aterkiekin egin den mosaiko handiena erabakitzeko eskubidearen alde egingo dugu, beraz animatu eta zatoz, goizeko 10etan trenetuz abiatuko baikara lasartearrak Zurriolara.

Zorion agurrak



Iugatz
ZORIONAK eta muxu-pila! Ostiraleko poteak zure kontu? Familia eta lagunak.



Aitor
Aitor Zorionak txapeldun! familiaren guztiaren partez. Eguna ona pasa!!!



Malen
Zorionak zure 8. urtebetetzean. Asko maite zaitugu! Familiako partetik.



Maria
Zorionak, laguntxo!! Oso ondo pasa zure urtebetetzean!! Sienaren partetik.




Siena
4 urte dituzu jada, gure neska pirata ausarta! Izugarri maite zaitugu!!! aita, ama eta Ekai.



Manuel eta Maite
Zorionak zuen 42. ezkontz urteurrenean Juan Mari, Lau eta Charlyeren partez!!




Lucia
Zorionak bihotza. Ze haundia 4 urte!! aitatxo eta amatxoren partez.



Manex
Ez mila musuk, ez mila besarkadak ezin izango lizukete frogatu zuregatik sentitzen dugun maitasun guztia. Zorionak maitia!



Maria Luisa
Zorionak Amona! Munduko amona onena! Txokolatzeko Muxusssss! Xabi, Nahia, Gaizka eta Maialen.



Urko
Zorionak Urko!! Azaroak 13an 7 urte egiten dituzu. Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!!



Leire
Zorionak printzesa! Txokolatzeko bi muxu potolo! Maite zaitugu! ama, aita eta Iratiren partez.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- Garaje itxia salgai erdialdean, Zapategi kalean. 14 metro karratu ditu. 22.000 euro. 607 49 16 63, Aritz.
- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Motoa salgai Honda CBF 600S (500-ra limitatzeko aukera) 2004koa. 3.200 euro. 630 03 27 79
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza 5ean. 600 414 331.
- Pisukide bila nabil. Etxe polita eta argitsua da, zentroan, hilabetean 300 euro. Pilar 647 88 42 78

Lan-eskaria

- Interna edo externa moduan etxeko gar-

- biketa lanetan edota agure zein haurren zaintza lanetan aritzeko prest. 639 41 22 33
- Lana bilatzen dut garbiketari, nagusien edota haurren zaintzan. Paperak egunean eta erabateko prestutasuna ordutegiei dagokionean. 669 93 10 26
- Interna moduan pertsona helduak zaindiko nituzke. Esperientzia daukat eta paperak egunean. 645 78 72 72
- Umeak, agureak zaintzeko neska arduratsua eskaintzen da. Maria 630 75 14 03
- Lana bilatzen dut nagusien zaintzan. Paperak egunean eta esperientzia 602 59 67 35, Jenny.
- Lehen Hezkuntza eta DBH-ko ikasleentzat klase partikularrak emateko prest. 649 20 76 69

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak
• Haizea Makazaga Hueso urriaren 29a.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 07**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Larunbata, 08**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 943 363549
- Igandea, 09**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 943 363549
- Astelehena, 10**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 363549
- Asteartea, 11**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteazkena, 12**
Acha-Orbea, Hipodromo etor.6 943 363549
- Osteguna, 13**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Ostirala, 14**
Gandarias-Urbe, Iñigo de Loyola 9 943 019521
- Larunbata, 15**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Igandea, 16**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astelehena, 17**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Asteartea, 18**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Asteazkena, 19**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 363549
- Osteguna, 20**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Larunbata, 21**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 943 363549


GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Muntteri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALA

2015eko Ordenantza Fiskalak, onartuta

KPIa %0,7 igotzea, enpresa sortu berriei lehenengo hiru urtetan zenbait hobari berri ematea eta egutegi fiskal berria onartu ziren, besteak beste

Ezohiko udalbatzarra egin zuten Lasarte-Oriako alderdi politikoei astearte goizean; datorren urterako Ordenantza Fiskalen inguruan aritu ziren. Onartua izan zen testua, zazpi aldeko bozkarekin (EH Bildu eta LOHP) eta bi abstentziorekin (EAJ). PSEk eta PPK ez zuten bozkatu, plenoa amaitu baino lehen joan egin zirelako. Adskribatu gabeko Marisa Zubiri ere joan egin zen. Tentsioa sortu zen alderdien artean, Ordenantzen testuari aurkeztutako emendakinak eztabaidatzean.

TXINTXARRI

Onartua izan da 2015eko Ordenantza Fiskalen testua. EH Bilduk eta LOHPek eman zioten babesa testuari, eta abstentitu egin zen EAJ. PSE-EEK eta PPK ez zuten botorik eman, saioa bukatu aurretik joan egin zirelako pleno aretotik. Adskribatu gabeko Marisa Zubiri ere joan egin zen.

KPIa %0,7 igotzea, enpresa sortu berriei lehenengo hiru urtetan hobari berri batzuk ematea eta egutegi fiskala aldatzea (zaborraren tasa kobratzeko epea apirilaren 1etik maiatzaren 15era aldatu dute) izan dira datorren urteko Ordenantza Fiskalean sartu diren berrikuntzetako batzuk.

Lau gai zerrendan

Lau gai osatu zuten astearte goizeko ezohiko udalbatzarreko zerrenda. Lehenengo taxien 2015. urterako hiritar tarifak onesteari buruzkoa izan zen. Tarifak ez igotzea erabaki zuten alderdi politikoei, aho batez. Ondoren, 2014ko ekitaldian kredituak aldatzeko bideratutako dossieren berri eman zuten Pablo Barrio alkateak.

Kreditu gehigarriak

Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko 2014/3 ize-neko dossiera onesteko proposamena aztertu zuten jarraian. Aurrera atera zen 8 aldeko bozkarekin (EH Bildu, LOHP eta Marisa Zubiri), kontrako batekin (PP) eta 7 abstentziorekin (PSE eta EAJ).

Guztira 834.255 euro bideratuko ditu Lasarte-Oriako Udalak, kredituak gehitu eta handitzeko dossiera onetsia izan ostean. Esate-



Astearteko ezohiko udalbatzarreko irudi bat; PSE eta PPKo zinegotziak utzia zuten jada pleno aretoa.

rako, alkatetzako altzariak aldatuko ditu. Horrez gain, Emakumeen zentroa kanpotik margotuko du (udan barrutik margotu zuten). Hondakinen kudeaketarako ekipamendua ere eskuratuko du udalak.

Beste hainbat zereginetara ere bideratuko du udalak kreditu hori. Sasoeta-Zumaburu ikastetxean konponketak egingo ditu eta publikoak diren bideak asfaltatzera ere bideratuko du dirua Udalak, besteak beste.

Emendakinak eztabaidatzen

Aurreko hiru gaiak aztertu ostean, joan den astean Ogasun batzordeak (tekniko eta alderdi politikoen ordezkariekin lankidetzan) prestatutako zirriborroari alderdi politikoei jarritako emendakinak aztertu zituzten. 25 ziren guztira.

Emendakin horietako batzuk aurrera atera ziren. EH Bilduren zenbait proposamen onartu ziren; koalizioko zinegotziek nabarmendu zituzten udal ikastaroen prezioak igotzearen aurkakoa eta alderdi politiko txikienei udal aretoak erabiltzea "zailtzen" dien tasa kentzearen aldekoa.

LOHPen emendakin batzuk ere onartuak izan ziren, KPIa igotzeari buruzkoak. EAJk, bere aldetik, disposizio gehigarri bat jartzea proposatu zuen EH Bilduk aurkeztutako emendakin batean (etxebizitza bezala erabiltzen diren ondasun higiezinaren errekergoa handitzeari buruzkoa). Alderdi jeltzalearen bozeramaile Estitxu Alkorkak eskatu zuen "Udalaren esku" uzteko zeregin hori, "ordenantza bidez" erabaki dezan ondasun higiezinaren errekergoa.

Arestian aipatutako emendakinak eztabaida eta bozkettan zehar tentsioa eta eztabaidak sortu ziren alderdi politikoen artean. Emendakinen zerrendan erredaktatuta zeuden alderdi politikoei zer

bozkatuko zuten plenoan, baina asteartean bertan aldatu egin ziren bozketa horietako batzuk.

Zerrendako 17. emendakina bozkatzen ari zirela, PSE-EEKo zinegotzi batek hitz gogorak zuzendu zizkion adskribatu gabeko Marisa Zubiriri. Leporatu zion "EH Bilduren alde" egin zuela zenbait emendakin bozkatzerako orduan. Zinegotzi sozialista lasaitzen ez zela ikusita, Pablo Barrio alkateak eskatu zion pleno aretoa uzteko. PSE-EE eta PPKo zinegotziak irten egin ziren, euren kideari "elkartasuna" adierazteko.

EAJren bozeramaile eta Ogasun batzordeko buru Estitxu Alkorkak ezohiko udalbatzarra "bertan behera" uztea proposatu zuen, "botazioak eraldatu" egingo zirela argudiatuz. Dena dela, bozkatzeke zeuden emendakinak aztertu ostean, saioarekin jarraitzea erabaki zuten aretoan zeuden politikariek. Plenoak jarrai-tzearekin batera, eztabaidak ere jarraitu zuen.

"EH Bilduk ez du bere hitza errespetatu Ogasun batzordean adostu zenaren inguruan. Puntu batzuekin ados zegoen, eta gainontzeko alderdiei eskatu zien adostutakoa errespetatzeko. Hori bai, ados ez zeuden puntuak buruzko emendakinak ekarri

dituzte plenora, eta negoziazio politikoa burutu dute LOHPekin eta Marisa Zubirirekin, emendakinak aurrera ateratzeko. EH Bildu ez da fidagarria akordioak egiterako orduan", salatu zuen Alkorkak. Onartu zuen "zilegi" dela hori egitea, baina horren berri "lehenago" izanez gero, "bi hilabeteko lana aurreztu" egingo luketela adierazi zuen.

EH Bilduko zinegotzi Gorka Lizarragak koalizioaren jarrera defendatu zuen: "Bost zinegotzi ditugu udaletxean, eta gure alderdiaren interesak defendatzeko akordiotara iritsi behar gara gainontzeko alderdiekin. Erabat zilegia da hori egitea. Alderdi fidagarria gara, astero biltzen baikara alderdi politikoei gure proposamenei buruz hitz egiteko".

Ordenantzak, onartuak

Emendakin guztiak aztertu ostean, 2015eko Ordenantza Fiskalen testuak bozkatu zituzten. Aldeko zazpi bozka (EH Bildu eta LOHP) jaso zituen, eta bi abstentzio. Marisa Zubirik pleno aretoa utzi zuen bozketa hori burutu baino lehenago.

EH Bilduk adierazi zuen "testu nahiko onargarria" zela ordenantzena. EAJk bere "haserrea" adierazi zuen EH Bildurekin, "akordioak ez zituztelako errespetatu".

PSE-EEren azalpenak

Lasarte-Oriako PSE-EEK Loharra bidali zuen asteartean, udaletxe zaharreko pleno aretoan jazotakoaren inguruan. Hala dio oharrik:

"Talde sozialistak pleno aretoa utzi zuen asteartean Pablo Barrio alkateak PSEko zinegotzi bat egotzi ostean. (...) Udalbatzarretik joan ginen Bilduren jarrera autoritarioa eta faxista salatzeak asmoarekin.

Onartezina da alkateak oposizioari hitza kentzea Bil-

duri gustatzen ez zaion zerbait esaten dugun bakoitzean. (...) Parte-hartzea dago Bilduk entzun nahi duena esateko bada, bestela ez dago parte-hartzerik. Gobernu faxista eta autoritarioa da Bildurena. (...)

Sozialistok ez dugu ulertzen Bilduk Ordenantza Fiskalen harira hartutako jarrera. Tasa orokorretan KPIa igotzearen aldeko bozka eman zuen, baina gerora komunikabideetan kontrakoa saldu ziguten. (...) Zentzugabea da".

ATERPEA

300 euroko saria zozketatu da

Bezeroaren hamabostaldia kanpainaren baitan hainbat ekimen gauzatu zituen herriko Aterpea merkatarien elkarteak. Horien artean, 300 euroko zozketa egin zuen bere bezeroen artean. Urriaren 31ko ONCE sariarekin bat egiten duen zenbakia 00009 dela jakitera eman dute.

GURE ESKU DAGO

Mosaikora joateko tiketak salgai Okendon

Herriko Gure Esku Dago taldeak, larunbatean Donostian egingo den mosaiko erraldoirako tiketak salgai jarriko ditu ostira-lean Okendon 19:00etatik 20:00etara. Tiket bakoitzak bost euroko kostua du eta honekin aterki bat eta euri kapa bat jasoko dute herritarrek trukean. Larunbatean berriz, Euskotren geltokian izango dira Gure Eskukoak 9:00etatik 10:00etara tiketak saltzen. Ondoren, herritarrek gonbidatzen dituzte denak batera trena hartu eta festa giroan Donostiara abiatzeko. Zurriola hondartzan mosaiko erraldoia osatzeko 5.000 lagun inguru beharko direla aurreikusitu du antolakuntzak, eta Lasarte-Oriatik 160 herritar joan beharko lirake.

IKASTAROA

KZguneko ikastaro berriak martxan

Hilabetero bezala herriko KZgunean hainbat ikastaro egiteko aukera izango da azaroan zehar ere. Ikastaro hauek irekiak dira eta Internetek eskaintzen dituen tresnak ezagutu eta ikasteko daude zuzenduta. Ikastaro guztien zerrenda sarean dago <http://www.kzgunea.net/formacion-kzgunea#> helbidean eta bertan ere izena eman daiteke. Lasarte-Orian zerbitzu hau 9:00etatik 13:00etara dago zabalik eta eskaintza doan da.

BIYAK BAT

Gabonetako loteria salgai

Biyak Bat egoitzan Gabonetako loteria salgai dagoela jakitera eman nahi izan dute. Hau eskuratu nahi duten bazkideek 74.656 zenbakia erosi ahal izango dute bulego ordutegian, 10:30tik 12:30era.

Udal tasetan %0,7ko igoera izango da

Udal gobernuak bere kezka azaldu du bilkuran gertatutakoaren aurrean

2015erako ordenantzen onarpena aurkezteko agerraldia egin zuten atzo alkateak eta Gorka Lizarraga zinegotziak. Tasa guztietan eragina izango duen neurri nagusia, hurrengo urteko KPI-aren aurreikuspenean oinarrituta ezarriko den igoera orokorra, %0,7koa izango da. Honekin batera, kezka azaldu zuten astearteko bilkuran gertatutakoaren aurrean.

TXINTXARRI

Agerraldian Gorka Lizarragak aipatu zuen, "gobernutik beharrezkoa ikusten genuen agerraldia egitea herritarrei hurrengo urteari begira ordenantza fiskalean izango dituzten aldaketa nagusiak behar bezala azaltzeko".

Udal tasa guztietan %0,7ko igoera orokorra izango da. Bestetik, Kultura, Gazteria eta Emakume zentroko ikastaroen tasak orain artekoak izango dira eta ez da formulatze berririk aplikatuko.

"Aurten egin diren aldaketa garrantzitsuenak arlo sozioekonomikoan eragiten dute, jardura ekonomikoak sustatu eta krisiaren ondorioak urritzeko

helburuz". Sortu diren enpresa txikienezko salbuespen eta hobariak izango dira. Era horretan lehengo urtean %100eko salbuespena izango dute, bigarren %75ekoa eta hirugarren %25. Lanerako ibilgailuetan zirkulazio zergak %5eko jaitsiera izango du eta azokan parte hartzen duten postuentzat tasak izoztuko dira.

Bestalde, %50eko errekar-gua onartu da etxe hutsentzat. "Gaur egun daudenak mugiarazteko eta alokairua sustatzeko". Etxe hutsen ordenantza egin beharko da eta bitartean ezingo da indarrean sartu.

"Kultur etxeko auditorioa erabiltzeko tasak teknikoak gastuak aurreikusten dituzte eta orduka kobratzen da". Kasu



Gorka Lizarraga zinegotzia eta Pablo Barrio alkatea atzoko agerraldian.

honetan herriko elkarten ekintzailatasuna sustatzeko %50eko hobia ezarriko da. "Elkarten moduan" alderdi politikoei Udal aretoa eta zoru publikoa erabili ahalko dute ordaindu gabe.

Kezka gertatutakoarekin

"Benetan arduratuta gaude batzarrean jazotako gertaerekin eta gure ustetan zenbait alderdi politikok erakutsitako jarrera ez da onargarria elkarrekiko erres-

petua eta elkarrekiko ulemena beharrezkoak diren baloreak baitira", adierazi du Lizarragak.

Agerraldian azaldu zuten, "Udal gobernuak ordenantzen prozesuan bere interesak defendatzeko akordioak bilatzen saiatu da. Modu horretan, PP, PSE eta EAJ-ren interesen aurka hainbat emendakin onartu ahal izan dira batzarrean".

PSE-EEK orain 5 zinegotzi ditu "hasieran zituenak baina bi gutxiago eta horrek batzarrean

bere indarraren galera suposatuko du. Gainera, ordenantzetan Marisa Zubiri PSEko kide ohiak hainbat emendakinetan Bilduren ezkerreko irizpideekin bat egin du. Hori dela eta, PSEko ordezkari batzuek Marisaren aurkako jarrera agertu zuten eta guretzat jarrera onartezina erakutsi zuten. Udaleko zinegotzi hau iraindu, mesprexatu eta gutxietsi egin zuten zutik jarri eta oihu eginez beste udal ordezkari harridurarako".

Argitu nahi izan dute hain zuzen hori izan zela, alkateak Lurdes Acevedo kalera bidali izanaren arrazoia: "Ondoren PSE eta PPko kideak jarrera hau ezkutatu nahi izan dute. Gure ustetan lotsagarria eta iraingarria da gerora alkatearen aurka esandakoak ikusita". Udaleko alderdi guztiei "errespetuan oinarritutako bizikidetzaren aurrera eramateko eskaera" egin zieten, "alderdi politikooi dagokigun bezala, negoziazio eta akordioetan oinarriturik herritarren mesedetan lan egiteko konpromisoa dugula uste baitugu".

Euskal Jaia iruditan

Jalgi kafe antzokian Euskal Jaiko argazkiak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar.

Urriaren 18an Juan Esteban Etxarri, Etxarri dendako, argazkilariak egindako irudiek osatzen dute azaroko erakusketa berezi hau. Herriko festa eta jaialdi ezberdinak jasotzea gustuko du herriko argazkilariak eta kamerarekin atera zen larunbat hartan ere.

2013ko Euskal Jaiko argazki batzuk ere gehitu nahi izan ditu bilduman eta egun horretan egin ziren ekintzak eta herriko kaleetako giroa islatzea izan du helburu.

Zuri beltzean eta koloretan, hainbat efektu aplikatu



Jalgin jarritako lanez gain, beste asko ditu bere dendako erakuslehoan.

dizkie argazkiei eta garai bateko Lasarte-Oria irudikatzen saiakera agerian uzten dute besteak beste lanek. Eus-

kal Jaian parte hartu zuten lasarteoriarrek beraz, euren burua argazkietan bilatu dezakete.

Ipuinekin gozatzeko



Haur liburutegian, herriko Kontukantoi kontalarien txanda izan zen asteazkenean. Gaztetxoak liluratuta utzi zituzten Bearen istorio zoroek eta Cesarren marrazkiek ipuinaren orduan.

Abendura bitartean oraindik herriko haurrek aukera

izango dute ekintza honekin gozatzeko. Datorren asteartean Pello Añorga izango da eta 27an berriz Bea eta Cesar bueltatuko dira.

Haurrek bakarrik sartu behar dute eta 18:00etan puntuan hasten da kontaketa antolakuntzak gogoratu bezala.



ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria

Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Stewart Vass Eskoziarra

"Jendeak normaltasunez hitz egin eta eztabaidatu du gaiaz"

Eskoziako erreferenduma beste herrialde batzuentzat eredu izan daitekeela uste du Vassek

Erabakitze eskubidearen gaia hartuta, Gure Esku Dago herritar mugimendua martxan dago Euskal Herrian. Ekaineko giza kateaz haratago, lanean jarraitze asmoa azaldu dute herritarrek euren erabakitze eskubidea gauzatu arte. Katalunian ere, euren etorkizunari buruz azaroaren 9ko galdeketa egingo dute asteburuan, azken orduan bertan behera uzten ez bada behintzat. Europar ordean, eredu izan da Eskoziak. Irailean Eskoziarrek erabaki zuten burujabe izan ala Erresuma Batuan jarraitzea eta bigarren aukera hau gailendu zen. Emaitzaren gaineratik, bertan gobernuak garatutako prozesu eta jarrera demokratikoa izan da hizpide Euskal Herrian. Prozesua herritarrek nola bizi izan duten kontatu digu Stewart Vass Edinburgh-eko herritarrak.

TXINTXARRI

Herritarren erabakitze eskubidea defendatzen du Gure Esku Dago ekimenak Euskal Herrian. Ekainaren 8ko giza kate jendetsuaz haratago, lanean jarraitze asmoa azaldu dute herri ezberdinetan sortutako taldeek, eta aldarrikapena lau haizetara zabaltzeko ekintza jendetsuak antolatzen jarraituko dute.

Egitasmo honen partaideen artean behin eta berriz entzun ahal izan da Eskoziari egindako erreferentzia. Bertan gauzatuko zen galdeketa eta egindako prozesu demokratikoa eredugarritzat hartuz. Galdeketa irailaren 18an egin zuten eta emaitza nahiko parekatuak izan arren, azkenean Erresuma Batuko kide izaten jarraitzea erabaki zuten herritarrek.

Bestalde Kataluniak aste-buru honetan du hitzordua. Madril jarritako oztopoen gaineratik, azaroaren 9an galdeketa egitea da Artur Mas Generalitateko presidentearen asmoa. Hain zuzen eskoziarrek prozesua nola bizi zuten kontatu digu Stewart Vassek.

Nola sentitzen zara Eskoziako galdeketa egin eta emaitza jakin ostean?

Hasiera batean minduta nengoen, ikusi bainuen eskoziar askok euren herrialdea estatu izatearen aurka bozkatu zutela. Ondoren, samin hori atsekabe bilakatu da.

Zure ustez, David Cameron Erresuma Batuko Lehen Ministroaren hitzak entzun ostean, zein izango da Eskoziaren etorkizuna?

Eskoziaren etorkizuna betirako aldatu da, inoiz ez da politikoki bera izango, nahiz eta Cameronek promes egingoak inoiz bete. Bitxia da, baina uste dut ezezkoaren bozkarekin Erresuma Batuaren haustura hasi dela. Uharteko lau nazionalitateek euren parlamentua badute, non dago elkartzeko gaituena?

Niretzat pertsonalki burujabe izatea zen aukera onena, zuk zeuk duzulako zure kontuen eta errealitatearen kontrola. Batera hobeto gaudela diotenek, pentsatzen dut beldurratik dela, nahiago dutelako egoera honekin jarraitu egoera ezezagun bati aurre egin baino.



Stewart Vass, Alazne Amadoz lasarteoriatarren lagunak prestutasun handiz erantzun zituen galderak.

"Independentziak herrialdearen eta biztanleriaren garapena ekarriko lukeela uste dut"

Zein giro bizi izan duzue prozesuak iraun bitartean?

Giro bikaina izan dugu, bi aldeetako jendeak normaltasun osoz hitz egin eta eztabaidatu du gaiaz inoiz aurretik gertatu ez den bezala. Egia esan ez da bereziki giro berorik edo festa girorik antzeman, ez alde batetik ez bestetik.

Zeintzuk dira batera jarraitzearen abantailak? Eta zer galdu duzue independente izateko aukera ihes egin da?

Batera jarraitzearen abantaila da badakigula zer espero

dezakegun, ezer ez delako aldatuko. Hori bai, Erresuma Batua osatzen duten lau herrialdeek baliabideak pila-tzen eta banatzen jarraituko dute, batasunaren mesedetan.

Independentziak eskoziarrei ahalbidetuko liguke gure etorkizuna guk geuk erabakitzea, gure idealen arabera eta beti Eskoziaren mesedetan lan egitea. Independentziak herrialdearen eta biztanleriaren garapena ekarriko lukeela uste dut.

Eskoziaren egin den erreferendum prozesua eredu bat izan daiteke beste herrial-

de batzuentzat?

Bai. Beste herrialde batzuek ikus dezakete gisa horretako auziak gizalegez garatu daitezkeela, prozesu demokratiko baten barruan.

Zer iritzi duzu Salmondren dimisioaz?

Tristetu egin nau Salmondren erabakiak. Hala ere, ez dut uste esparru politikotik desgertuko denik. Ez da Eskoziako Lehen Ministroa izango, baina politikan aktore aktibo izaten jarraituko du.

Cameronen ibilbide politikoaren ardatza eta helburu nagusia Eskoziarentzat independentzia lortzea izan da, baina ez du lortu. Beraz, dimisioa ematea zen aukera bakarra. David Cameronek erabaki du independentziaren gaia belaunaldi berriek eraman behar dutela hemendik aurrera.

NOAUA! REN KULTURALDIA 2014

NOAUA! bordaberri 3 USURBIL 943360321 elkartea@noaua.com

LABURRAK.-

Zarautz/Beltzak Rugby Taldeak 11-24 irabazi du Burgos indartsuaren zelaian

Burgosen aurka jokatu zuten Zarautzko eta herriko mutilek larunbatean, joan den jardunaldira arte lider zihoan talde sendoaren aurka hain zuzen. Gaztela-Leongo errugbi taldeak gogor lan egin zuten defentsan eta aurreko lefroetan gipuzkoarrek baino kilo gehiago zituzten arren, Babyautok 11-24 irabazi zuen igoera postuetan finkatzeko aukera ematen dioten puntuak lortuz.



Herritarrei dagokienez, Unai Urruzolak eta David Vegak hasieratik jokatu zuten eta Ander Rekondo 54. minutuan zelairatu zen.


Orain, taldea bigarren postuan kokatuta dago Ohorezko B mailan eta aipatzekoa da kategoria honetan lehenengo lau postuetan talde euskaldunak ageri direla, estatuko Ohorezko mailara igotzeko aukerakin.

Aitor Otamendik New Yorkeko maratonia egin du, 3:15eko denborarekin

Pozarren zen herritarra igandean, munduko lasterketa famatuen eta jendetsuena amaitu berri. Denera 50.000 lasterkari irten ziren AEBtako hiri ezaguneneko kale eta auzoak zeharkatzeko zapatilak estu lotuta, eta herritarrek 1.946. postuan zeharkatu zuen Central Parkeko helmuga.

Hotzari aurre egiteko toaila ganean eta irribarre handi batekin adierazpen hauek egin zituen helmugan: "Goizean-goiz jaiki, autobusean sartu eta Staten Islandeko irteera-lerrora hurbildu naiz. Abiatzeko ordua iritsi zaidan arte, luze egin zait egonaldia, sekulako hotza egiten zuen (8°C) eta geldirik egoteak ez dit lagundu. Behin korrika hasita asko gozatu dut, lasterketa gogorra da, baina izugarri polita. Gehien harritu nauena jendearen babesa eta animoak izan dira. Bukaera amaiezina egin zait, baina etxeko animoei esker denbora polita egin dut. Oso-oso pozik nago, merezi izan dute hilabete hauetako entrenamendu guztiek eta gaurko sufrimenduak. Orain hiriaz gozatzera goaz!".

Bihar itzuliko da New Yorketik eta igandean Behobia-Donostia lasterketa egingo du.



PILOTA.-

Hil ala biziko partidak larunbatean

Gipuzkoako II. mailako azken jardunaldia jokatuko du Intzak

Intzako seniorrek bikain hasi zuten Gipuzkoako txapelketa, bitik bi irabazi zituzten lehen bi jardunaldietan Villabonako Behar Zana eta Igeldoko Lizardi menderatuta. Orduz geroztik partidu guztiak galdu dituzte, eta Hernaniren aurkako azken jardunaldian erabakiko da dena.



Aritz Solano pilota astintzen Igeldoko Lizardiren aurkako partidari.

TXINTXARRI

Urteko bi partidu garrantzitsuenetakoak jokatuko ditu Intza KE-k larunbatean Michelingo pilotalekuan. Senior eta jubentil mailako mutilek tentsio handiko norgehiagokak jokatuko dituzte, binaka.

Jubentilen bigarren mailan, herritarrek Hernaniren aurka jokatuko dute, sailkapenean bigarren doan taldearen aurka hain zuzen. Irabaziz gero bigarren postuan kokatuko liriteke lasarteoriatarrek Hernaniri aurrea hartuta eta finalurrekoak jokatuko txartela eskuratuko lukete.

Printzipioz, hernaniarren bikotea indartsuagoa da, baina Intzako mutilek euren aukeretan sinetsi eta sorpresa ematen saiatuko dira. Lan horretan Eneko Sarasola, Jagoba Mendizabal eta Jon Aranberri gazteak arituko

dira. Hiru horiek izan dira ligan parte-hartu dutenak eta azken momentuan erabakiko du Jose Felix Solano prestatzaileak nork jokatuko duen.

Seniorrak kinka larrian

Jon Pello Artetxe eta Aritz Solanok berriz, hil ala biziko partida jokatuko dute Michelinen bertan.

Gipuzkoako II. Mailako azken jardunaldian Hernani hartuko dute, matematikoki jaitsita dagoen taldea da bizi-lagunena, baina Intzak garai-pena behar du mailari eusteko promozioa jokatuhahi ez badu. Halere, irabaztearekin soilik ez du nahikoa, beste emaitza bat jarraitu beharko du emozioz beteriko azken jardunaldian: "Garai-pena behar dugu, oso garrantzitsua da jaitsiera saihesteko, dena den, irabazita ere igeldo

eta Eskoriatzaren arteko partidako emaitzari begiratu beharko diogu matematikoki salbatzen ote garen jakiteko", adierazi du Jose Felix Solano Intzako entrenatzaileak.

Izan ere, Eskoriatzak irabazten badu, ez dago zereginik. Herritarrek jaitsiera ekiditeko promozioa jokatuko beharko lukete bai ala bai. Kontran, Igeldok irabaziz gero eta herritarrek ere 22ra ailegatzeko badira, libre izango dira eta datorren denboraldian ere Gipuzkoako II. mailan jokatuko dute.

Beraz, larunbatean arratsaldeko 16:00etatik aurrera herriko pilotazaleek hitzordu garrantzitsua dute Michelinen herriko jubentil eta seniorrak aupatzeko. Batzuek goiko postuetatik egingo dute borrokan, besteek mailaz ez jaisteko.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 8
Villabona, Arratzain 10:00etan
Villabona - Ostadar SKT
Infantil Ohorezko maila,
6. jardunaldia.

Michelin, 14:00etan
Ostadar SKT - Urnieta
Kadeteak I. Maila,
8. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean
Ostadar SKT - Amara Berri
Emakumezko Erregionalak,
7. jardunaldia.

Zarautz, Asti 16:00etan
Zarautz KE - Ostadar SKT
Ohorezko Erregionalak
9. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean
Texas Lasartearra - Danena
I. Jubentil maila
8. jardunaldia.

Urnieta 18:00etan
Urnieta - Ostadar SKT
I. Jubentil maila,
8. jardunaldia.

Igandea 9
Donostia, Puyo 11:00etan
Vasconia - Ostadar SKT
Infantil Txikiak,
6. jardunaldia.

Michelin, 11:15ean
Ostadar SKT - Romo
Kadeteen Euskal Liga
9. jardunaldia.

Michelin, 13:00etan
Texas Lasartearra - Euskalduna
I. Erregional maila
8. jardunaldia.

Michelin, 14:45ean
Ostadar SKT - Herrerako Sporting
Jubentil Ohorezko maila
8. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 8
Michelin 9:45ean
Zarautz/Beltzak vs. Hernani
Sub 16ek Ligako jardunaldia dute.

Asti, Zarautz 10:00etan
Zarautz/Beltzak B vs. Bera Bera
Sub 14ek Ligako jardunaldia dute.

Asti, Zarautz 11:00etan
Zarautz/Beltzak A vs. Eibar/Arrasate
Sub 14ek Ligako jardunaldia dute.

Michelin, 11:00etan
Zarautz/Beltzak vs. Hernani
Sub 18ek Ligako jardunaldia dute.

Asti, Zarautz 16:00etan
Zarautz/Beltzak vs. Oviedo
Seniorrak, Ohorezko B mailako jardunaldia.



ATLETISMOA

Igandea 9
Behobia 10:00etan
Herriko 239 korrikalarik Behobia-Donostia 20 kilometroetako proba mitikoan parte-hartuko dute. Horietatik 30 emakumezkoak izango dira. Aurtengo nobedadea ibilbide aldaketa izango da, Lezoko txirristrak kendu eta Errenterian barrera joango da lasterketa.

PILOTA

Larunbata 8
Michelingo pilotalekua 16:00etan
Intza KE - Hernani
Gipuzkoako jubentil II. maila, azken jardunaldia. Finalurrekoetarako txartela jokoan dute herritarrek.

Intza KE - Hernani
Gipuzkoako II. mailan, seniorrek etxean jokatuko dute azken jardunaldia, jaitsierako promozioa ekiditeko borrokan.

ARETO-FUTBOLA

Michelingo kirol-gunea
Herriko areto-futbol txapelketaren bosgarren jardunaldia jokatuko dute.

Ostirala 7
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Txindoki - Txoko Taberna
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Reformas Lagunak - Insausti

Larunbata 8
Michelingo kirol-gunea, 9:15ean
Urdaneta HK - Also Taberna
Michelingo kirol-gunea, 10:15ean
Izkiña Taberna - Viña del Mar
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
Trumoi - Ilargi
Michelingo kirol-gunea, 12:15ean
Indaux - Bar Buenetxea

Igandea 9
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
Izkiña Taberna - Buenetxea
Atzeratutako partida da, berez, joan den jardunaldian jokatuharrekoak.

Agenda

Igandea, 17:00etan Manuel Lekuonan



Tarzanen azken abenturak

"Tarzan" filma ikusi ahal izango da igandean haurren zinema atalean. Gaur egunera ekarri dute ipuin klasikoa eta Tarzan enpresari aberats batzuen seme bezala aurkezten da. Hauek Afrikan euren negozioa handitzeko mineralak bilatzen dituzten bitartean, istripuz hil eta semea, Tarzan gorila familia batek hartuko du. Euskarazko emanaldia izango da. Sarrera Interneten 3,18 euro eta egunean bertan erosita 3,70 euro.

Azaroak 07-21

Patxi Fernandezek akuarelak ikusgai izango dira erakusketa aretoan. Ohiko ordutegian.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Azaroan zehar

Urriaren 18an ospatu zen Euskal Jaiko argazki erakusketa ikusgai izango da hilabete osoan zehar Jalgin. Egun horretan ateratako argazki guztien artean, herriko Etxarri argazki dendak osatutako bilduma da.

Jaialdia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azaroak 15, 19:00etan

XI. Akordeoi Jaialdia izango da Zero Sette akordeoi orkestraren eskutik. Honetan Joxean Goikoetxea eta Joao Frade & Munir izango dira emanaldian herriko akordeoi taldearekin. Sarrera 3 eurokoa izango da eta 16 urte azpikoek sarrera dohainik izango dute.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 07, 22:00etan

"Relatos Salvajes" filmaz gozatu ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatzen duen Zine Forum saioan. Sarrera Interneten erosita 4,24 euro eta bertan 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 08, 20:00etan

"Relatos Salvajes" filma ikusteko aukera izango dute herritarrek helduen zinema atalean. Sarrera

Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

Bertsolaritza

JALGI KAFE ANTZOKIA

Ostirala 07, 22:30ean

Bertso eskolen arteko desafioa izango da. Lasarte-Oriako Erra! bertso-eskolako Beñat Iguaran, Asier Azpiroz eta Ane Labakak kantatuko dute Tolosaldeko Harituz Bertsozale Taldeko Unai Mendizabal, Imanol Irazustabarrena eta Iñigo Gorostazuren aurka. Sarrera doan.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 11, 18:00etan

Pello Añorga idazle eta kontalariarekin ipuin kontaketa saioa haur liburutegian. 4 eta 5 urteko umeei zuzendutako saioa izango da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Usurbil

Kulturaldia

SUTEGI

Ostirala 07, 22:00etan

Noauaren Kulturaldiaren baitan "Piano bat bertsoan. Gurekin abestu nahi?" emanaldia izango da. Euskal kanten inguruko inprobisazio msaio bat da. Sarrera aurrez erosita 6 euro, egunean bertan 7 euro.

Larunbata 08, 19:30ean

"Emak bakia" Man Rayren filma ikusteko aukera izango da. Sarrera aurrez erosita 6 euro, egunean bertan 7 euro.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 9:00etatik 13:00etara.

Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandean kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

Txintzarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta daitezke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

63an jaiotakoen afaria

Kaixo 63an jaiotako guztiei! Aurten ere afaria egitekotan garelako jakinarazi nahi dizuegu. Azaroaren 22an izango da afaria, oraingo honetan Abenden gaueko 21:00etatik aurrera. Aurrez, 20:00etan Okendo plazan elkartzeko asmoa daukagu pote batzuk hartzeko. Aurten ere menuaren prezioa 36 eurotako izango da. Joan nahi duzuenok dirua Laboral-Kutxako ES24 3035 0036 1003 61134420 kontu korrontean sar dezakezue. Harremanetarako telefonoak: 696 914 566 edo 657 770 318. Anima zaitezte!

Hemeroteka

Duela 1112 ale

1997ko azaroaren 21ean herriko odol-emaielen elkartearen 25. urteurrena jasotzen zuten TXINTXARRIK. 1972. urtean hasi zuen bere ibilbidea Joxe Usabiaga herritarrek azaltzen zuten modura. Bederatzi kide izatetik 900 izatera pasa zirela azpimarratzen zuten honetan. "Gipuzkoan Lasarte-Oria da odol gehien ematen duen herrietako bat, lehen hamar edo hamabien artean gaude. Gainera hilero 80tik gora odol-emaiela biltzen ditugu".

Orduan Joxek aipatzen zuten emakume gehiago zeudela gizonak baino. 18 eta 36 urte arteko 450 emakume ziren odola ematera gerturatzen zirenak eta gizonen kasuan berriz, 38 eta 65 urte bitarteko 394. Herritarrek animatzeko "odola emateagatik ez da ezer gertatzen. Ez du minik ematen. Odol emaielen artean %1 bakarrik zorabiatzen da".

Berriki eskualde mailako ospakizuna egin dute eta Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak 50. urteurreneko ospakizun ekitaldia egingo du Donostiako Kursalean, azaroaren 15ean.



Odol-emaielen Elkartearen zilarrezko ezteiak

1972. urtean Joxe Usabiagaren aginduz zera esan zion: "Zergatik ez dugu Lasarten odol-emaielen elkartea osatzen?". Joxe Usabiaga argitu zuen denera ez zela arrazoi trinko lagun hark osatutako berehala ekitea. Berriz, Miguel Rosalesin hitz egin, aspaldiko laguna, eta elkartea osatu zuten. "Hasiera jarraitu ahal izateko dira. Gaur hain gauza asko ezin izaten ziren: odolala odola egiten zela, gaitasunak harritzen zirela, etab. Hara, gara hartan ikusi ahal izaten ziren: euren odolala egiten zuten eta azkenean odolala maiz emateagatik batzuk lekuetara hurbildu zuten". Hori dela batekin kalera atera eta jendea diruz eskatzea". Gaur egun, hainbat diruz ez dute arduratu beharrik. Izan ere, Udalerria sortuz geroztik, Udalerria kontura doaz gauza guztiak, "hori aipatzeko da, dudarik gabe".

Emakume gehiago
Gipuzkoan, Lasarte-Oria odol gehien ematen duen herrietako bat da. "Bat, lehen hamar edo hamabien artean gaude. Gainera, hilero 80tik gora odol-emaiela biltzen ditugu". Emakume ala gizon gehiago? "Erantzuna" emakumeek, noski, gizonak zabarragoak dira herriko gaitzarako". Odol-emaielen batze-

eta baita beste odol-emaiela guztiak biltzeko dituztena. "Gaur egun, ematen dugun odola besteontzako da eta halar akaso guretzat. Helburua horrekin da".

Sabir Urcelay Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartearen lehendakaria da, Gipuzkoako odol bankuan eragiten du lan. Berak odola ematen duen gaitzaren burua zera esan du: "Urtero hantabest eragiten du. Odolala egongo ez balitz, asko hil egingo lirateke. Elkarrekin, asko lan biltzeari da, transplantatzen ezate baterako. Askotan inkurritu dugun norbait inkurritu hil da".

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Bertso-desafioak antolatu ditu Earra!-k

Lasarte-Oriako eta Tolosaldeko bertso-eskolek Jalgin egingo dute lehen saioa gaur, 22:30ean

Tolosaldeko Harituz eta Lasarte-Oriako Earra! bertso-eskolek desafioa dute gaur Jalgin. Gaueko 22:30etik aurrera herriko Ane Labaka, Asier Azpiroz eta Beñat Iguaran Tolosaldeko Unai Mendizabal, Imanol Irazustabarrena eta Iñigo Gorostazuren aurka arituko dira bertsoetan. Doan izango da saioa eta antolatzaileen asmoa herriko bertso-eskola "indartu" eta bertsolari gazteei "bestelako plaza batean" bertsoetan egiteko aukera ematea da. Saio arina izango da, umoretsua eta publiko guztiei zuzendutakoa, gazte jendeari bereziki.

Jon ALTUNA EGITEGI

Duela bospasei urte, GR izeneko bertso-desafioak egiten zituzten herrien artean. Gipuzkoako txoko ezberdinetako bertso-eskolek elkarren aurkako saioak prestatu eta ikus-entzuleak hara eta hona ibiltzen ziren bateko eta besteko saioak entzuteko.

Azken urteotan ez da halakorik egin, eta herritarrek gogoz hartzen zutela ikusita, Lasarte-Oriako Earra! Bertso-eskolak hilabete hasierako lehenengo ostiraletan desafioak berriro antolatzeari ekin dio. Oraingoz lau saio ditu finkatuta, hilabete bakoitzeko lehenengo ostiraletan.

Lehen desafioa gaur bertan izango da, Jalgi Kafe antzokian gaueko 22:30etik aurrera. Tolosaldeko Harituz eta Lasarte-Oriako Earra! dira nor baino nor arituko diren bi bertso eskolak.

Herritarren hamaikakoa Beñat Iguaranek, Asier Azpirozek eta Ane Labakak osatuko dute; tolosarrena Unai Mendizabalek, Imanol Irazustabarrenak eta Iñigo Gorostazuk. Desafioa amaituta, entzuleek egingo dituzte epaile lanak garailea zein den erabakitzeko.

Datozen saioak Hernaniko (abenduaren 5ean), Andoaingo (urtarrilaren 16an) eta Azpeitia, Errezil eta Azkoitiko (otsailaren 6an) bertso-eskolen aurka izango dira.

Helburuak

Ane Labaka Earra! Bertso-eskolako kideak azaldu duenez, saio hauen asmoa bikoitza da: "Batetik, Lasarte-Oriako bertso eskola indartu egin nahi dugu eta bestetik, inguruko herrietako jendearekin eta bertsolariekin harremanak estutzeko modu bat da". Bertso-saio arinak izango dira, erritmo handikoak eta umorerik ziur ez dela faltako. Horregatik uste du Labakak gazte jendearentzat ostiral gauerako "plan erakargarria" izan daitekeela.

Gainera, bertsolariarentzat eurentzat "plaza berri bat" zabaltzeko aukera aparta iruditzen zaio Earra! bertso eskolari, "harremanetan jarri garen herri guztiek berehala eman digute baietza, mikrofono aurrean jartzeko gogoz gaude denok", adierazi du Labakak.

GR bidea jarraituz

Iraganean, ohikoak izaten ziren Zabaleta auzoan edota Jalgi Kafe antzokian GR bertso-bideko saioak. Desafio berezi hauek 2003an hasi ziren GR4 izenarekin, eta 2008ra arte iraun zuten. GR16 izan zen azken ekitaldiaren izena, denera Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko 16 herrik parte-hartu zutelako. 50 saio eta finala jokatu ziren 2008ko udazkenera bitartean.

Helburua, oraingoaren berbera zen hein batean, plaza gutxi egiten zituzten



2008an egin zen herrian azkeneko GR16 bertso-ibilbidea, orain eskala txikian berreskuratu nahi ditu saioak Earra! bertso-eskolak.

bertsolarietara kantatzeko aukera ematea. Bide eta asmo horri jarraituz, GRa eskala txikian berreskuratu du Earra! Bertso-eskolak.

Eskolaren egoera

Earra! bertso-eskolan bost lagun biltzen dira astero. Gainera, 15-16 urteko gaztetxo batzuekin ere saioa egiten dute. "Egia da ez garela astero lagun asko biltzen, baina uste dut herrian bertsozaletasuna badagoela, Earra!-ren inguruan sare bat sortu dugu eta oso aberatsa da zenbat gauza egin diren ikustea, aurrerantzean ere gehiago egiteko asmoz gaude", adierazi du Labakak.

Txapelketaren harra

Bestalde, Gipuzkoako Txapelketa ere hurbiltzen ari da pixkanaka, datorren urtean egingo da probintziako lehiaketa garrantzitsuena eta beti pizten da halako har berezi bat bertsolari guztien barnean. Gaurkoaren gisako saioak beraz, aukera aparta dira gazteentzat, pixkanaka doinu eta errimen bilaketan trebatzen hasteko.

BERTSO-DESAFIOA

Lasarte-Oria

VS

Tolosaldea



Beñat Iguaran

Unai Mendizabal

Asier Azpiroz

Imanol Irazustabarrena

Ane Labaka

Iñigo Gorostazu

Jalgi kafe-antzokian,

azaroaren 7an, 22:30ean

ANTOLATZAILEAK:

EARRA! BERTSO ESKOLA



Gaur gaueko bertso-desafioaren kartela. Antolatzaileak: Earra!, Ttakun eta Udala.

Schwarzkopf

REVLON PROFESSIONAL

WELLA

L'ORÉAL

parlux 385 POWER LIGHT

ghd

SALAZARPROFESIONAL

Geltoki, 15 Lasarte-Oria 943 360 211

20 urte hoberena eskaintzen!
Eskerrik asko gugan jarritako konfiantzagatik!

PROFESIONAL

SEBASTIAN montibel-lo REDKEN
Salem COSMETICS KATIVA KÉRASTASE
ALCANTARA EUGENEPERMA
D'ORLEAC académie scientifique de beauté